

## EBALUAZIO BEREZIA

---

**ESKAERAK (GUTUNAGAZ):** 2021eko martxoaren 1etik 5era

**LEKUA:** Fakultateko Idazkaritzan (Irakasguneak eta Leioa).

**FAKULTATEKO BATZORDE AKADEMIKOAK ONARTUTAKO IRIZPIDEAK.**  
(2017ko abenduaren 11ko Fakultateko Batzarra).

UPV/EHUko arautegi orokorrak bestelakorik (Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiko 30a), salbuespen egoerak, ezartzen duen kasuetan izan ezik, maila klinikoetako irakasgaiak ez dira ebaluazio berezi bidez gaindituko. Hor sartzen dira Medikuntza eta Odontologiako azken 3 mailetakoko irakasgaiak eta Erizaintza eta Fisioterapiako *Practicuma* espezifikoki.

### GRADUKO TITULAZIO OFIZIALETAKO IKASLEEN EVALUAZIORAKO ARAUTEGIA

#### III. KAPITULUA. EBALUAZIO BEREZIA

##### 27. artikulua.- Epaimahai bereziak

1.- UPV/EHUko ikastegi guztiek izango dute Epaimahai Berezia. Epaimahaiburua ikastegiko dekanoa edo zuzendaria izango da, baina dekanotza edo zuzendaritza taldeko edozein kideri eskuordetu ahal izango dio eginkizun hori. Gainera, atalak eta/edo titulazio bat baino gehiago dituzten ikastegiek epaimahai berezi desberdinak eratu ahal izango dituzte egoitzarako eta atal bakoitzerako. Kasu horretan, ataleko Epaimahai Berezi burua ataleko koordinatzailea izango da eta epaimahaiko idazkaria, aldiz, koordinatzaileak izendatutako ataleko dekanorde edo zuzendariorde bat. Gainerako sei epaimahaikideak ataleko irakasleak izango dira, jakintza arlo desberdinetakoak, eta Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu. Epaimahai honen bileretara ataleko Ikasleen Kontseiluko burua edo hark eskuordetutako ikasle bat joango da; hitza izango du, baina botorik ez.

2.- Ikastegiko idazkari akademikoak epaimahaiko idazkari lanak egingo ditu; hitza izango du baina botorik ez. Epaimahaian, epaimahaiburu eta idazkariarekin batera, ikastegiko sei irakasle jardungo dute. Irakasle horiek jakintza arlo desberdinetakoak izango dira, eta Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu ikasturte bakoitzeko lehen hiruhilekoan. Epaimahai honen bileretara ikastegiko Ikasleen Kontseiluko burua edo hark eskuordetutako ikasle bat joango da; hitza izango du, baina botorik ez. Jakintza arlo bateko ordezkaria ezin bada Epaimahai Bereziaren bilerara joan, arlo horretako edo beste arlo bateko irakasle batek ordezkatu ahal du, baina ikastegiko dekanok.

edo zuzendariak egoera hori idatziz jasota utzi beharko du epaimahaiaren aktari erantsiko zaion ziurtagiri batean.

## **28. artikulua.- Ebaluazio berezirako eskariak egiteko eta ebazteko epeak**

Ikasleek irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko eskariak egin ahal izango dituzte ikasturte bakoitzeko irailean eta martxoan. Eskariak egiteko azken eguna hilaren 5a izango da kasu bietan. Ikastegietako epaimahai bereziek irailaren edo martxoaren 15a baino lehen hartu beharko dute erabakia, hurrenez hurren..

## **29. artikulua.- Irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko eskariak egiteko bete beharreko baldintzak**

Irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko eskariak egin ahal izateko, honako baldintza guzti hauek bete beharko dira:

- 1.- Ebaluazio bereziaren bidez gainditu nahi den irakasgaiari matrikulatuta egotea eskaria egiten den ikasturtean.
- 2.- Titulazioan ebaluazio bereziaren bidez gainditu daitezkeen kredituen % 90 gaindituta edukitzea. Ezin izango da inola ere ebaluazio berezirik eskatu Gradu Amaierako Lanerako eta Practicumarako.
- 3.- Gehienez ere, titulazioko kreditu guztien % 6ri dagozkion irakasgaien ebaluazio berezia eskatu ahal izango da. Salbuespena izango da irakasgai bakarrak titulazioko ECTS kredituen % 6 baino gehiago izatea: horrelakoetan irakasgai ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko eskaria egin ahal izango da.
- 4.- Ikasleak ebaluazio bereziaren bidez gainditu nahi duen irakasgaiko hiru deialdi, behintzat, erabilita izatea.
- 5.- Deialdietakoren batean, gutxienez, hiru puntuko kalifikazioa lortuta izatea. Baldintza hauek betetzeak ez du esan nahi automatikoki irakasgaiak ebaluazio bereziaren bidez gaindituko direnik. Gainditzea edo ez gainditzea kasuan kasuko epaimahai bereziak adostu beharko du, kontuan izanda hurrengo artikuluan ezarritako irizpideak.

## **30. artikulua.- Ebaluazio berezirako eskaria ebazteko irizpideak**

a) Ebaluazio berezirako eskaria jaso eta 29. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla baieztatu ondoren, epaimahai bereziek onartu egingo dituzte ondoko baldintzak betetzen dituzten eskari guztiak:

- Ikasleak irakasgaiko lau deialdi, behintzat, erabilita izatea.
- Deialdietakoren batean, gutxienez, lau puntuko kalifikazioa lortuta izatea.
- Gradu Amaierako Lana kenduta, titulazioa amaitzeko geratzen zaion azken irakasgai izatea.



b) Ebaluazio berezia eskatzeko baldintzak bete arren aurreko atalean adierazitako baldintzak, irakasgaia ebaluazio bereziaren bidez gaitztea dakartenak, betetzen ez direnean, ikastegiko Epaimahai Bereziak honako hauek izango ditu kontuan eskaria ebazteko:

- Ikastegiko Batzorde Akademikoak onartutako irizpideak, unean uneko ikasturterako matrikula aldia baino lehen argitaratuko direnak.
- Irakasgaiaren ardura duen sailaren txosten arrazoitua.
- Ikaslearen espediente osoa.
- Ikaslearen alegazioak, bere ustez irakasgaia ebaluazio bereziaren bidez gaitzetzeko kontuan hartu behar diren alderdiak nabarmenduz eta arrazoituz aurkeztu ahal izango dituenak

## **Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako garatzen duen arau osagarria**

**(Erabakia, 2020ko otsailaren 19koa UPV/EHUko Graduko Batzordearena)**

**ERABAKIA, 2020ko OTSAILAREN 19koa, UPV/EHU/EHUko GRADUKO BATZORDEARENA, GRADUKO TITULAZIO OFIZIALETAKO IKASLEEN EBALUAZIORAKO ARAUTEGIKO 30. ARTIKULUKO b) ATALA GARATZEN DUEN ARAU OSAGARRIA ONARTZEKO DENA (EBALUAZIO BEREZIA)**

Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia 2017. urtean sartu zen indarrean (Gobernu Kontseiluaren 2016ko abenduaren 15eko Erabakiaren bidez onartua, 2017/03/13ko EHAA n argitaratua), eta horren ondorioz III. kapituluaren aipatzen den ebaluazio bereziari eragiten dioten zenbait

aldaketa gertatu ziren; besteak beste, aipatzekoa da kendu egin zela ikastegietako ebaluazio bereziko epaimahaien erabakiaren ondorengo instantzia, errektoreordetza eskudunari (Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetza gaur egun) gorako errekurtsioa aurkeztu aurrekoa.

Aldaketa horrek agerian jarri du ebaluazio berezirako eskariak baloratzeko ikastegiak onartuta dituzten irizpideen heterogeneotasuna, eta horrek ekarri du erantzun desberdinak ematea egoera berdinei, bai eta organo horiek eta errektoreordetzak modu desberdinean interpretatzea arautegia. Era berean, ikastegi batzuk ez dira egon ados gorako errekurtsioak ebazteko hartutako erabakiarekin. Zehatz esanda, zalantzak sortu dira aipatutako arautegiko 30. artikuluko b) atalaren aplikazioan.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiak, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko denak, gai hau aipatzen duela Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloak hartzen dituen artean: Graduko eta graduondoko ikasketa ofizial eta berezkoekin lotutako esku hartze guztiak edo ikasketa horien ondorioz eragindakoak.

Bestalde, Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiak honako hau dio lehenengo xedapen gehigarrian: UPV/EHUko Graduko Batzordeari ahalmena ematen zaio arautegi hau garatuko duten arau osagarriak emateko.

Aipatutako 30.b) artikuluko ebaluazio berezian parte hartzen duten organo eta instantzien interpretazioa ahalik eta homogeenoa izan dadin, Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzak Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiko 30.b) artikulua garatzen duen arau osagarria aurkeztu du, onartua izan dadin.

Aztertuta eta eztabaidatuta arau osagarri horren zirriborroa, Graduko Batzordeak honako hau

**ERABAKI DU:**

**ONARTZEA** Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiko 30.b) artikulua garatzen duen arau osagarria. Arauak hau dio hitzez hitz:

b) Ebaluazio berezia eskatzeko baldintzak bete arren ez badira betetzen aurreko atalean adierazitako baldintzak, irakasgaia ebaluazio bereziaren bidez gainditzea dakartenak, ikastegiko epaimahai bereziak honako hauek izango ditu kontuan eskaria ebazteko, kasuan kasuko sailaren txostena jaso eta aztertu ondoren:

- Lehenik eta behin, ikastegiko batzorde akademikoak onartutako irizpideak, unean uneko ikasturteko matrikula aldia baino lehen argitaratuko direnak. Epaimahai bereziak onartu egingo dituzte irizpide horiek betetzen dituzten eskari guztiak.

- Ebaluazio berezia eskatzeko baldintzak bete arren ez badira betetzen ikastegiko batzorde akademikoak onartutako irizpideak, honako hauek hartuko dira kontuan eskaria ebazteko: ikaslearen espediente osoa (besteak beste, ikasketetan emandako denbora) eta ikaslearen errendimendu akademikoari zuzenean eragiten dioten egoera hauek, ikasleak berak alegatu eta justifikatu beharko dituenak:

% 33ko desgaitasun maila edo handiagoa izatea; hiruhileko bat edo gehiago ematea gaixorik; lan arazoak; genero indarkeriaren biktima izatea; erditzea, adopzioa, harrera edo hiru urte baino gutxiagoko seme-alaben ardurak izatea; ikaslearekin bizi den mendeko senidea zaintzea; goi mailako kirolaria izatea; ezohiko emaitzak izatea ebaluazio berezia eskatzen den irakasgaietan, espedienteko gainerakoekin alderatuta; eta errendimendu akademikoari zuzenean eragiten dioten beste egoera batzuk, ikasleak alegatu eta justifikatuak.

Ikastegiko epaimahai bereziak hartuko duen erabakia arrazoituz egin beharko da.

Erabaki honen berri emango zaie UPV/EHU/EHUko ikastegi guztiei, kontuan izan dezaten onartutako araua 2020/2021 ikasturtetik aurrera aplikatuko dela.

**GRADUKO IKASKETEN GESTIORAKO 2020/21 IKASTURTEKO ARAUTEGIA ETA ARLO HORRETAKO BESTE ARAUTEGI BATZUK, LINKa:**

<https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduikoikasketak/ebaluaziorako-arautegia>